

Nafarroako Esaera Zaharrak. Beuntza.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrek. Beuntza.

- 1939 *Aixe etorri, aixe yoan.*
Aise irabazia, aise joaten.
- 1940 *Aldameneko beiek esne aunitz ematen.*
Besten gauzak obeak.
- 1941 *Al dune egiten duenari ez iago eskatu.*
- 1942 *Apirille ona ezautzeko, eun urte bizi bearako! -Eun ta bat ba'itut, eta ez dut bat onik ezautu.*
- 1943 *Aunitz al dao? -Bana baite.*
Batzuen batzuk badire.
- 1944 *Aurreko dantzariak erakusten, atzekoak nola egin.*
Olatsu beste leku askotan.
- 1945 *Buru txar, txoriburu!*
- 1946 *Etorri ziñela(r)ik ere, bazen naikoa euri.*
Kattalin osabaren etxera yoan zen pestara, euria ari bazuen ere. Pestaren azken egunean eta biramonean ere euri ta euri. Orduan osabari erran zion: "Ola ari badu, ez naiteke etxetik atera". Eta osabak erantzun esaera ori: "Etorri ziñela(r)ik ere...".
- 1947 *Gizona, saskipetik ere gizon!*
Andre batek bere gizona saskipean sartu omen zuen. Eskale lotsagabe bat atera etorri ta iñondikoak erraten asi omen zitzaion. Eta gizonak orduan oi u egin: Etortzen banaiz...! Ori entzun orduko eskalea igesi. Orduan andreak erran: Gizona, saskipetik ere gizon! Olatsuko ipui bat bada beste errien batean ere.
- 1948 *Gizon bizar-gorri, andre-zapaltzalle.*
Gizon zakarra, gogorra izaki.
- 1949 *Madoz eta Oderiz, urbillena Astiz: obe nuke sekula ikusie ez banitz.*
- 1950 *Martxoko ostotsa, berrogei eguneko ekaiztie.*
- 1951 *Nai ba'uzu lan gutxi izan, ez zazule deus ere izan.*
Lanik gabe ez dago izaterik.

- 1952** *Nere pez(e)tak bost balio ttik (dizkit).*
Izerdi onez irabazia duk eta.
- 1953** *Neska, neska: ire senar orrek lepo mea izateko, burua aundia din. -*
Lepoan falta du(e)na, buruan din.
- 1954** *Nolako maixtarra, alako baztarra.*
Nolako langillea, alako baratzea.
- 1955** *Ostatuko neskatx(a) ederrakin eta bide ondoko aritzekin, ez diteke fiatu.*